

2022ko memoria:

Kontseilua sendotzeko urtea



**Euskadiko Nekazaritza eta
Elikadura Ekologikoaren
Kontseilua**
Consejo de Agricultura y
Alimentación Ecológica
de Euskadi

Babesleak:



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**



Europar Batasuna
Landa Garapenerako Europako
Nekazaritza Funtsa:
Europak landa-guneetan inbertitzen du

2022ko memoria: Kontseilua sendotzeko urtea

2022a barne antolamendua sendotzeko urtea izan da Kontseiluarentzat non bere organigrama eta komunikazio guneak indartzea funtsezkoak izan diren.

Berriz ere berritu da Eusko Jaurlaritzako Elikagaien Kalitateko Zuzendaritzarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmena, Kontseiluaren jarduerak garatzea ahalbidetu duena. Gainera, kalitate-araubideetan babestutako elikagaiak sustatzeko neurrietarako laguntza-deialdian sartu ahal izan gara.

KONTROL ETA ZIURTAPEN LANAK

Kontseiluaren lanik garrantzitsuenetako bat eko, bio edota organiko aipamenekin merkaturatzen diren elikagai edo bestelako nekazal ekoizpenen jarraipena egitea da. Bai eta ekoizpenean zehar parte hartzen duten esku desberdinek Europar Batasuneko araudian ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen dituztela kontrolatu eta ziurtatzea ere. Hau da, animalia bat jaio, zein hazi bat ereiten denetik, salmenta apaletarainoko bidea ziurtatu egiten du Kontseiluak eragileen arteko leia garbia izateko eta erosleei berme osoa emateko helburuekin. 2022ko urtarrilaren 1ean EBko araudi ekologiko berria indarrean sartu zen eta aplikatzen hasteko Kontseiluak egindako lana nabarmendu beharrekoa da.



Ziurtatutako nekazal lurren azalerari dagokionez, urteko % 15eko erritmoan egin zuen gora 2022an. Aurreko urteekin alderatuta, erritmoa pixka bat moteldu da alderdi honetan. Gipuzkoak, larreetarako lurretan nabarmentzen dena, izan du igoera nabarmenena (%35) abeltzain handiek izena eman ondoren. Hala ere, Arabako azalera garrantzitsuena izaten jarraitzen du mahatsondoen, larreen eta estentsiboen laborantzari esker.

Abeltzaintzarekin lotutako larreen azalera nabarmentzen da probintzia guztietan (azalera guztiaren % 74a). Ondoren, mahastiak Araban, barazkiak eta fruta-arbolak Bizkaian eta Gipuzkoan fruta-arbolak gailentzen dira.

Une honetan Euskadiko nekazaritza lurren % 5a ekologikoan ziurtatuta dago dagoeneko, oraindik urrun 'Baserritik mahaira' Europako Itun Berdearen helburua betetzeko: 2030ean lurren % 25a ekologikoa izatea. Hala ere, ekologikora bideratutako azalera ekoizpenen arabera aztertuta, ortularitza (% 19,20) eta frutagintza (% 21,05) Europak eskatutako % 25etik oso hurbil agertzen dira.

EKOIZLEEN ERROLDAK

Eko, bio edota organiko izenekin ezagutzen den ekoizpen ereduko ekoizleen erroldak handitzen jarraitu du, nahiz eta 2022an Kontseiluaren ibilbideko igoerarik txikiena izan (% 1ekoa besterik ez). Belaunaldien arteko errelebo eza geldialdi honen arrazoietako bat izan da.



Aurreko urtearekin alderatuta, 2022ko izen-emate kopuruak % 52ko beherakada izan zuen (82tik 43ra), 2008tik izan den izen-emate txikiena. Beste urte batzuetan ez bezala (non zerotik hasitako proiektuak nabarmendu ziren), azpimarragarria da izen emateen %86ak konbentzionalen jarduten zutela eta eredu ekologikorako urratsa eman zutela 2022an. Horrez gain, 3 ziurtagiri kendu ziren jarraipen bisita egin ez izanagatik. Ziurtagiria lortzeko interesak ordea, bere horretan jarraitu zuen eta Kontseiluak 90 informazio eskaera jaso zituen.

Eragileen artean inoiz baino baja gehiago eman ziren 2022an zehar (35). Baja gehienaren arrazoia (16k) nekazal jarduera uztea izan zen, krisiaren ondorio nabarmena.

Eragile bakoitzaren jarduera ekonomiko nagusia kontuan hartuta, talde handiena nekazal ekoizleena da % 65,43 eta ondoren, eraldaketarena % 19,7. Aurreko urteetan ez bezala, eragileen kopuruak behera egin zuen Landare ekoizpenean (-% 0,2), Akuikulturaren (ziurtatuta zegoen eragilea baja izan zen), Merkaturatzean (-% 7) eta Inportazio (-% 20) jardueretan. Goranzko joera mantendu zen, aldiz, Elaborazioan eta Animalien ekoizpenean. Bigarren honetan haragitarako hegaztien eta behien hazkuntzan igoeraren ondorioz. Araudi berria indarrean sartzeak aukera eman zuen jarduera berri bat ere ziurtatzeko: gatz ekoizpena.



EKOIZPEN EKOLOGIKOAREN JARDUERA BALIOAN JARRIZ



2022an lehendabiziko aldiz 'Nekazaritza Ekologikoaren Europako Eguna' ospatu zen irailaren 23an. Prentsaurreko bat antolatu zen eta bertan, Eusko Jaurlaritzako eta Kontseiluko ordezkariak, Euskadiko Nekazaritza Ekologikoaren inguruko datuak eta ibilbidearen balorazioa egin zuten. Eguna aprobetxatuz, Kontseiluak 'Ekologikoak gara, naturala delako' kanpaina aurkeztu zuen. Kanpainak bi helburu nagusi zituen; alde batetik, ekoizleei ekologikoaren eredugarritasuna erakustea eta, bestetik, erosleei ekologikoaren aldeko aukera naturala dela erakustea. Kanpaina honek presentzia nabarmena lortu zuen telebistan, irratian, prentsa digitalean eta beste zenbait kanal fisiko zein digitaletan. Gabonetan elikagai ekologikoen kontsumoa sustatzeko asmoarekin, beste komunikazio kanpaina bat abiatu zuen Kontseiluak: 'Gabonetan ere ekologikoa dena hobetzeko!'

Ekoizpen ekologikoaren informazioa gizarteratzeko helburuarekin, Egunean Behin jolas ezagunaren 9. denboraldia babestu zuen Kontseiluak (martxoaren 14tik 20ra). Guztira 60.144 pertsonek jolastu zuten.

'Elikadura ekologikoarekin dena hobetzen da' izenpean erakusketa ibiltariak hainbat herribisitatuta zituen: Derio, Amorebieta Etxano, Gasteiz, Zizurkil, Durango, Laguardia eta Alegria Dulantzi. Erakusketa 14 panelek eta 3 minutuko bideo batek osatzen dute eta gizarterari ekoizpen ekologikoari buruzko ikuspegia helaraztea eta eskaintzen dituen abantailak eta onurak azaltzea du helburu. Erakusketa 140 egunetan egon zen ikusgai.

Urtean zehar, Kontseiluak Euskadin nekazaritza eta elikadura ekologikoaren erreferentzia izanik, hainbat formakuntza, hitzaldi eta jardunaldietan parte hartu zuen. Nabarmenen artean SEAE kongresua, I+G Agro jardunaldiak, Basque Environment Ocean Week eta Ecowine aipatu daitezke, besteak beste.

Hainbat eragilerekin batera, Kontseilua Euskadin eta Euskaditik kanpo antolatutako hainbat azokatan egon zen 2022an zehar: BioAraba, Berdeago Nature, Bioterra, Gustoko, SS Gastronomika eta BioCultura Madrid.

Ekoazoka txikiagoei dagokionez, 2022an ekoizle elkarte eta erakunde desberdinek 15 Udako Azoka antolatu zituzten Elorrio, Zigoitia, Zumaia, Donostia, Errenteria, Algorta, Zerain, Aretxabaleta, Mungia, Gasteiz, Eibar, Durango, Leintza-Gatzaga eta Amasa-Villabonan. Kontseiluak komunikazio lanetan lagundu zuen. Gazteak azoketara erakartzeko asmoz, Udako Azoken irudiari buelta bat eman zitzaion kartelaren diseinua berrituz eta sareetako irudiarekin bateratuz.

Aurreko urteetan bezala, azokarekin batera dastaketak edo sukaldaritza erakustaldiak antolatu ziren. Horrez gain, beste azoka eta kaleko merkatu batzuetan ere egon ziren Kontseilua eta bere eragileak: Elorrioko Ferixa Nagusikoan, Donosti Auzo Osasuntsuaren Egunean eta Arabako Kanpuseko azokan. Horrelako azoka txikiak tokiko ekoizle ekologikoentzat salmentarako eta kontsumitzaileekin duten harremana errotzeko erakuslehoak dira.



HEZKUNTZAN PRESENTE

Eskola adinean dauden gaztetxoak etorkizuneko kontsumitzaile gisa duten garrantziagatik, Kontseiluaren helburuetako bat hezkuntza-komunitatean presente egotea da. Ekoizpen ekologikoaren inguruan ikastetxeei tresna aplikagarri eta erabilgarri bat eskaintzeko, Kontseiluak LURZORUA prestakuntza- eta sentsibilizazio-egitasmo propioa abiatu zuen 2017 urtean. 2022an guztira LURZORUA egitarauaren 20 saio burutu ziren eta Euskadiko 11 ikastetxeetako 500 ikasle inguruk parte hartu zuten.



2023ARI BEGIRA

Kontseiluko kideei dagokionez, legegintzaldiko azken urtea izan zen 2022a. Zuzendaritza batzordea hautatzeko prozesua maiatzean hasi zen eta, bitartean, hauteskunde arauetan aldaketa garrantzitsuak egin dira, batik bat Emakume Nekazariaren Estatutuak agindutakoak etorkizunean ere beteko direla bermatzeko. Erakunde eta elkarte desberdinen aginte batzordeetan emakumeen presentzia gutxienez % 40koa izan behar da. Kontseiluaren kasuan, hauteskundeetan aukeratzen diren 8 kideen artean oreka mantentzeko erdi eta erdi izango dira. Lan hitzarmena eta finantziazioa bezalako gai garrantzitsuak ere finkatu dira eta 2023aren amaierarako hautatutako talde berria jarriko da lanean.



Kontseiluaren jarduerak eta zereginak anitzak dira, horregatik 2023ari begira, sektoreko eragileen arteko barne komunikazioa hobetzea, herritarren artean eko aipamena balioan jartzea, Ekolurra marka indartzea eta sektorea handitzen laguntzea ezarri ditu helburu bezala.

